

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

38/2020 Foru Agindua, otsailaren 14koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen baita Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Larrein 13 sektoreko Ituntze Batzarrean egindako aldaketa, hau da, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatzea

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko sarrera data 2020ko urtarrilaren 27a duen idazki baten bidez, bidali du Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Larrein 13 sektoreko Ituntze Batzarreko idazkariak egindako ziurtagiria, Zuzendaritza Kontseiluko karguak berriro direla adierazten duena, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Larrein 13 sektoreko Ituntze Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren otsailaren 26ko 155/2007 Foru Aginduaren indarrez.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan xedatzen da ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari erantzen zaio 2019ko abenduaren 17an egindako egiaztagiria, zeinak jasotzen baitu Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Larrein 13 sektoreko Konpentsazio Batzarraren Batzar Orokorak 2019ko azaroaren 28ko bilkuran hartutako erabakia. Bilkura horretako gai zerrendaren lehenengo puntua zen Zuzendaritza Kontseiluko kideak aldatzea, eta erabaki haren bidez jakinarazten da Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi duela eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu dela.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Larrein 13 sektoreko Ituntze Batzarrean izandako aldaketa, hots, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatzea: Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi du eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO